

[Eusk/Cast] Nueva sentencia del Tribunal Supremo contraria a la central térmica de Castejón

SUSTRAI ERAKUNTZA :: 11/04/2019

El Tribunal Supremo ha vuelto a dar la razón a los vecinos y las vecinas de Castejón que piden la paralización del 2º grupo de la central Térmica de Elerebro en Castejón

[Euskara]

Castejoneko zentral termikoaren aurkako Auzitegi Goreneko epai berria

Beste behin ere Auzitegi Gorenak arrazoia eman die Elerebro zentral termikoa gelditzea eskatzen duten Castejoneko bizilagunei.

Auzitegi Gorenak epai berria eman du Madrilgo Auzitegi Nagusiak emandako ebaZenpenari buruz. Bere garaian Madrilgo Auzitegi Nagusiak deklaratibotzat jo egin zuen zentrala martxan jartzeko baimena baliogabetzen zuen epaia, eta, beraz **ez zuen deus eskatu** emandako epai hori betearazteko. Nahiz eta 2013an Auzitegi berak baimena baliogabetu, Auzitegiak kontuan hartu egin du 2012an Energia Ministerioak 2005ean emandako baimen administratiboa konbalidatu egin zuela. Horrela, Administrazioak konpondu nahi izan zuen Auzitegiak ezeztatzera zihoan baimena.

2019ko martxoaren 19ko epai berrian, Auzitegi Gorenak dio konbalidazio hori zuzenean lotuta dagoela baimena baliogabetzen zuen epaia betetzearekin. Beraz, Madrilgo Auzitegi Nagusiari berriz ere itzuli egiten dio auzia eta **epaia ematera behartu** egiten du bi konturi buruz: alde batetik, ea **baimena baliogabetzen zuen epaia gauzatu den ala ez**; beste aldetik, ea eman zen konbalidazioa **egin ote zen bakarrik ezeztatzeko zorian zegoen baimena salbatzeko**, auzibidea oraindik zabalik zegoela.

Duela 14 urte Elerebro zentralaren bigarren taldea ezartzeko baimena eman zen. Oraindik ere, Castejoneko bizilagunek, Sustrai Erakuntza Fundazioarekin batera, **auzitan jarraitzen dute** justizia egin dadin, Nafarroako administrazioen laguntzarik gabe. 2013an Madrilgo Auzitegi Nagusiaren epaiak argi eta garbi zioen **zentralaren bigarren taldeak ez zuela betetzen garai harten indarrean zegoen ingurumen legedia**. Auzitegi Gorenak berak epai hau berretsi egin zuen 2016an. Baimena bi aldiz legez kontrakotzat jo izan da. Hala ere, **Estatuko Administrazioak sekulakoak eta bi egin dituzte ilegalitatea iraunazteko**. Bitartean, Nafarroako Gobernuak jarraitzen du beste aldera begira, orain arte bezalaxe.

Hauxe dugu Auzitegi Gorenak Sustrai Fundazioari arrazoia ematen zaion **bigarren** aldia. **Zer behar du Nafarroako Gobernuak zentralaren jarduera geldiarazteko?**

Nabarmendu behar da, Castejongo zentral termika hauek Castejon eta Muruarte artean dagoen 400 kVko **linea elektrikoaren** iturria direla. Momentu honetan, linea hori **luzatu nahi dute Itsaso arte**, Gipuzkoan. Linea honen helburua, aste honetan esan den bezala, Frantziara zentral honetako eta beste elektrizitatea esportatzea da.

[Castellano]

Nueva sentencia del Tribunal Supremo contraria a la central térmica de Castejón

El Tribunal Supremo (TS) ha vuelto a dar la razón a los vecinos y las vecinas de Castejón que piden la paralización del segundo grupo de la central Térmica de Elerebro en ese municipio.

El TS se ha tenido que pronunciar ante la resolución del Tribunal Superior de Justicia de Madrid que consideraba que la sentencia que anulaba la autorización dada a la central para poder funcionar era meramente declarativa y **no exigía ninguna otra acción** para su cumplimiento. El TSJ de Madrid llegaba a esa conclusión porque a pesar que en 2013 el propio Tribunal anulaba la autorización, en el año 2012, el ministerio de energía había convalidado la autorización administrativa concedida en 2005. De esa manera, la administración pretendía subsanar una autorización que estaba a punto de ser anulada por un Tribunal.

El Tribunal Supremo en la reciente sentencia de 19 de marzo de 2019, establece que esa convalidación está directamente relacionada con el cumplimiento de la sentencia que anulaba la autorización. De esta manera, pasa de nuevo la pelota al TSJ de Madrid, y le obliga a tener que **pronunciarse sobre si la sentencia que anulaba la autorización está ejecutada o no**. Deberá decidir también si esa convalidación que se dio mientras el proceso judicial estaba abierto **buscaba únicamente salvar una autorización que sabían iba a ser anulada**.

14 años después de que se autorizara la instalación del segundo grupo de la central de Elerebro, y ahora de la mano de la Fundación Sustrai Erakuntza, los vecinos y las vecinas de Castejón **siguen pleiteando**, sin ninguna ayuda de las administraciones Navarras, para que se haga justicia. La sentencia de mayo de 2013 del TSJ de Madrid, confirmada posteriormente en octubre de 2016 por el propio Tribunal Supremo, declaraba que **la autorización que se le dio al segundo grupo de la central no cumplía con la normativa ambiental** que en esa época era de aplicación. La autorización ha sido declarada ilegal, y confirmada su ilegalización **la administración estatal ha hecho lo posible por seguir manteniendo la ilegalidad** y el Gobierno de Navarra ha mirado y sigue mirando para otro lado.

Esta es la **segunda** sentencia del Tribunal Supremo que da la razón a la fundación Sustrai en este tema. **¿Qué más necesita el gobierno de Navarra para decretar la paralización de la actividad de la central?**

Es importante resaltar que las centrales térmicas de Castejón son el pilar fundamental de la **Línea eléctrica** a 400 kV que une Castejón y Muruarte, y que en estos momentos están intentando **prolongar hasta Itsaso**, en Gipuzkoa. La función de esta línea, tal y como ya se ha informado recientemente, es la exportación de la producción energética de estas centrales y otras, a Francia.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-nueva-sentencia-del>